

# **INDARKERIA MATXISTA BIZI DUTEN EMAKUMEEN ARRETAREN HOBEKUNTZARAKO**

## **ERAKUNDEEN ARTEKO JARDUERA ETA KOORDINAZIO PROTOKOLOA**

### **LEZOKO ETA PASAIAKO UDALAK OARSOALDEAKO ESKUALDEA**



**Osakidetza**

DONOSTIALDEA ESI  
OSI DONOSTIALDEA



Lezoko Unibertsitateko Udala



PASAIAKO UDALA

## Edukia

SARRERA.....	3
1. ZIOEN ADIERAZPENA ETA TERMINOLOGIA .....	5
2. HITZARMENAK .....	8
3. ESKU-HARTZEAREN IRIZPIDE ETA HELBURU GIDARIAK.....	10
4. LEGE ESPARRUA ETA EMAKUMEEN ESKUBIDEAK .....	12
5. GIZARTE ZERBITZUEK BIDERATUTAKO ARRETA-, DERIBAZIO- ETA KOORDINAZIO-PROZEDURAK .....	15
6. POLIZIA-ZERBITZUEN ARTEKO ARRETA-, DERIBAZIO- ETA KOORDINAZIO- PROZEDURAK (Ertzaintza eta Udaltzaingoak) .....	20
6.1. Ertzaintza: Sailen funtzioak .....	20
6.2. Ertzaintzaren prozedurak .....	20
6.3. Udaltzaingoaren prozedurak .....	22
6.4. Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko koordinazioa .....	23
7. OSASUN-ZERBITZUEK ESKU HARTZEKO PROZEDURAK.....	27
7.1. Larrialdietako arreta .....	27
7.2. Lehentasunezko arreta.....	28
7.3. Osasun zerbitzuen eta inplikaturako gainerako erakundearen arteko koordinazioa .....	29
7.3.1. Etxeko tratu txarren aurrean, ageriko lesio fisiko eta psikiko larriekin ..	30
7.3.2. Etxeko tratu txarren kasuan, ageriko lesiorik gabe.....	31
7.3.3. Esku hartzea gertatu berri den sexu eraso edo abusu kasuetan (72 ordu baino gutxiago) .....	31
7.3.4. Esku hartzea gertatu berri ez den sexu eraso edo abusu kasuetan .....	32
8. BERDINTASUNEKO SAILEN EDO ARDURADUNEN PROZEDURAK .....	33
8.1. Sailaren helburuak arretan .....	33
8.2. Berdintasun-sailen egitekoak .....	33
9. ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIOA.....	35
9.1. Kideak .....	35
9.2. Funtzioak .....	35
9.3. Maiztasuna eta deialdiak .....	36
10. INDARKERIA MATXISTA EDO SEXISTAREN ONDORIOZKO HERIOTZEN AURREAN OARSOALDEKO UDALEN ERANTZUN INSTITUZIONALA .....	37
1 ERANSKINA: FORU ETA ERKIDEGOKO BALIABIDEAK .....	40
2 ERANSKINA: IZAERA PERTSONALEKO DATUAK ERABILTZEKO BAIMENA ETA INFORMATZEKO AKTA. ERTZAINZA.....	42
3 ERANSKINA: BAIMEN INFORMATUAREN AKTA. GIZARTE ZERBITZUAK.....	43
4 ERANSKINA: DATU PERTSONALAK LAGATZEKO ADOSTASUN AKTA. UDALTZAINGOA .....	45

## **SARRERA**

Azkeneko hamar urteetan, emakumeen kontrako indarkeria matxistak arreta handia izan du maila guztietan, dela komunikabideetan, politikan edota asistentzia-zerbitzuetan. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Jaurlaritzaren Osasun Sailak «Etxeko tratu txarren aurrean jarduteko osasun-protokoloa» egokitu zuen Euskadirako, Espainiako Osasun Ministerioak Justizia eta Barne Ministerioekin zein zientzia-elkarteekin batera prestatutakoa, alegia; haren helburua osasungintzako langileei hainbat irizpide ematea zen, indarkeria-susmoak edo -aztarrenak nabaritzuz gero. Ertzaintzak, bestalde, bi protokolo espezifiko onartu ditu gai honen beraren inguruan: «Sexu-erasoen kasuetan jarduteko protokoloa», 2000. urtean argitaratua, eta, bestetik, «Etxeko indarkeriari buruzko instrukzioa», 2002an prestatua.

Emakundek sustatu eta koordinatutako «Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei arreta hobetzeko erakundeen arteko protokoloa», 2001eko urriaren 18an sinatua, nahitaezko erreferente da toki-gobernuetarako; izan ere, hainbat erakunde inplikatzeko lortu zuen, hala nola Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Fiskaltza, Eusko Jaurlaritzaren Osasun, Herrizaingo, Justizia, Lan eta Segurtasun sailak, hiru foru aldundiak, Euskadiko Udalen Elkarte, Legelarien Euskal Kontseilua eta Medikuen Euskal Kontseilua. Bigarren hitzarmena 2009ko martxoan sinatu zen, eta horrek are neurri gehiago eta hobeak ekarri zituen genero-indarkeriaren biktimak artatzeko.

Udalerriei dagokienez, esandako hitzarmena orientabide izan da toki-zerbitzuak emateko garaian, baita erakundeak elkarren artean koordinatzeko ere, emakumeei indarkeriatik ihes egiteko bidean erantzun eraginkorragoa emateko euren ingururik hurbilenean.

Koordinazio horren azken helburua zera da, emakumeak ibilbide osoan babestuko eta lagunduko dituen sare bat sortzea eta bigarren mailako biktimizazioa saihestea. Baina era berean koordinazio hori oinarritzeko da irizpideak eta esperientziak elkarrekin trukatzeko, erakundearteko lana errazagoa izan dadin eta elkarren arteko sarea gero eta sendoago bihurtzeko.

Koordinazio-protokolo bat prestatzea ez da prozesu tekniko hutsa; aitzitik, aukera ederra da esku-hartze eragileek elkarren berri izateko eta irizpide komunak jakiteko, errekonozitzeko, eztabaidatzeko eta prestatzeko, guztia ere lan-prozedura

eta -mekanismo egokiak taxutze aldera. Hori dela eta, prozesuok denbora, ahalegina eta dedikazioa eskatzen dituzte, lanerako erreminta baliagarri bilakatuko badira.

Erabilgarritasun hori indartu egingo da lan honen segimenduari. Hori horrela izanik, protokolo hau Oarsoaldean jarduten duten erakundeek orpoz orpo elkarrekin lan egiteko abiapuntu baino ez da.

Ahaleginak ez bikoizteko, Lezoko eta Pasaiako Udalek Ertzaintzarekin eta Osakidetzarekin koordinatzeari ekin diote elkarrekin; etorkizun hurbilean, gainera, eskualde osoko udaletara ere zabal liteke protokoloa. Modu paraleloan, bi udalek udalerrirako koordinazio-protokoloak ere prestatu dituzte. Ahalegin hori zehazteko, elkarrekin lan egiteko mekanismo berriak taxutu dituzte, indarkeria matxistari aurre egiten ari diren emakumeak, indarkeria horretatik ihes egiteko borrokan ari direnak, ahalik eta modurik onenean artatzeko.

2016ko azaroa

## 1. ZIOEN ADIERAZPENA ETA TERMINOLOGIA

Indarkeria matxista –hau da, beste pertsona bati kalte egitea helburu duten harreman-irizpideak eta jarrerak– emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun estrukturalean errotuta dagoen arazoa da; hori horrela izanik, ezin liteke pertsonen arteko terminoekin bakarrik azaldu, eta, behar bezala tratatuko bada, indarkeria horren intentzionalitatea ere nabarmendu beharra dago: emakumeen autonomia- eta erabaki-gaitasunak **azpiratzea eta kontrolatzea**, alegia. Hori dela eta, horizonte zabalagoa behar du: **ahalduntzea**, emakumeen aukerak eta gaitasunak zabaltzeko modu gisa, indarkeriatik irten daitezen, eta **laguntza**-konpromiso etengabea izatea erakunde publikoen aldetik.

Indarkeria horren formak eta izendatzeko moduak Gipuzkoako Foru Aldundiaren martxoaren 9ko 2/2015 FORU ARAUAN daude jasota (emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoan), zehazki «V. KAPITULUA. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK» izenekoan. Hala, 51. artikulua honako definizioak aurreikusten ditu biktimei arreta emateko politikak gidatzeko, protokolo honek bere egiten dituenak.


Foru-arau honen ondorioetarako, indarkeria matxista izango dira sexu/genero/sexualitate sistemaren heteronormaltasunari aurre egiten dioten gorputzen aurkako kontrol, eraso, ukapen eta inposaketa zuzen, egiturazko eta sinbolikoak, hala nola, transgreditu gabe ere, bere baitan boterearen harremanak jasaten dituzten objektua diren, emakumeen, gorputzen kontrakoak. Bi kasuetan haurtzarotik adierazten dira eta bizitza osoan zehar mantentzen dira. Indarkeria matxista da indarkeria sexista, baina baita beste indarkeria mota batzuk ere, nola transfobia, lesbofobia eta homofobia.

Indarkeria sexista dira emakumeen aurkako kontrol, eraso, ukapen eta inposaketa zuzen, egiturazko eta sinboliko mota guztiak, beste faktore batzuekin nahastuta, hots, identitate pertsonala osatzen duten beste faktore batzuekin nahastuta, hala nola adina, nazionalitatea, arraza, osasun fisiko eta mentala, funtzionalitatea eta abar.

Indarkeria sexista eta gainerako indarkeria matxistak, identitate pertsonala osatzen duten intersekzio ezberdinen markoaren konplexutasunean ulertu beharrekoak dira: adina, jatorria, arraza, osasun fisikoa eta mentala, funtzionaltasun aniztasuna, etab.

Protokolo honek emakumeen kontrako indarkeria matxista/indarkeria sexista izango ditu ardatz:

Indarkeriaz agintzeko eta kontrolatzeko adierazpide guztiei egingo die erreferentzia, agerpen modu orotakoei, baldin eta emakumeen eta gizonen arteko hierarkiaren arabera egiten badira; hau da, «maskulinoa» «femeninoari» ustez gailentzean zaiola uste izanda egiten diren jarrera bortitz guztiak, indarkeria gisa adieraz daitezkeenak:



Sexu-indarkeriaren modu horiek hainbat harreman motatan ager daitezke. Indarkeriazko jarrera zer harremanetan gertatzen den testuinguru apur bat izan dezagun, honako kontzeptu hauek baliatuko dira:

- ❑ *Genero-indarkeria*. Genero-indarkeriaren kontrako babes integralerako neurriei buruzko Lege Organikoan jasotako definizioari (2004ko abenduaren 29ko BOEn argitaratua) erreferentzia egiten zaion kasu guztietan: «Indarkeriazko egintza oro, fisikoa nahiz psikologikoa, baita sexu-askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo nahierara askatasunaz gabetzea ere, gizonetako beren ezkontide diren edo izan diren emakumeei, edo haiekin antzeko maitasun-harremanak dituzten edo izan dituzten emakumeei ezartzen dizkietenak, nahiz eta elkarbizitarik ez izan».
- ❑ *Etxeko indarkeria*. Ahaidetasun-harreman batean gertatzen den indarkeria mota oro, bikotekidearen eta bikotekide ohiaren erasoak salbu. Era berean, emakumeek gizonen egindako edo sexu bereko pertsonen artean izandako

erasoak ere biltzen dira hemen, baldin eta bikotekide edota bikotekide ohien arteko harremanetan gertatu badira, elkarrekin bizi ala ez<sup>1</sup>.

Indarkeriari aurre egin behar dioten emakume biktimei arreta emateko inplikaturik dauden erakundeek jarduera-protokoloak prestatu dituzte azkeneko urteetan indarkeria-kasuetarako, bereiziki bikotekideen eta bikotekide ohien artean ageri diren indarkeria-kasuetarako (genero-indarkeria izenez ezagutzen dena). Erakundeok konpromiso irmoa dute protokolo hau sinatzean: erakundearteko koordinazioan aurrera egitea, protokolo espezifikoetako prozedurak harmonizatzeko bidean.

Protokolo hau ez da dokumentu itxia; aitzitik, protokoloaren segimendua egiteko aurreikusitako espazioetan hautemandako beharretara egokitzea da asmoa. Era berean, beste erakunde publiko batzuk eta gizarte zibileko elkarteak biltzeak zer nolako garrantzia duen azpimarratu nahi du, indarkeria matxistaren inpaktua bizi duten emakumeei eta adingabeei babesa eskaintzeko sarea poliki-poliki zabaltzeko.

---

<sup>1</sup> Nahiz eta hori izan Zigor Kodean jasota dagoen definizioa, kontuan izan behar da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Politiketako Departamentuak emandako zerbitzu espezializatuak prest egoten direla emakumeen kontrako indarkeria matxistari erantzuteko, haren adierazpide orotan. Horrek esan nahi du bitarteko horiek eskuratzeko irizpide bezala familia barruko indarkeria sexistaren biktimak hartzen direla; hau da, familia-loturak elkartzen dituen pertsonen indarkeriari aurre egin behar dioten emakumeak.

## 2. HITZARMENAK

**Lehena:** Jarduteko eta koordinaziorako erakundearteko protokolo bat sinatzea; protokolo horrek beharrezko mekanismoak emango ditu, Lezo eta Pasaia udalerrietan genero-indarkeriarekin eta sexu-erasoekin lotutako egoerei aurre egin beharrean dauden emakumeei eta emakumeon ardurapean dauden adingabeei arreta hobe eskaintzeko.

**Bigarrena:** Bi udalerrietan esparru honetan lan egiten duten erakundeekin batera koordinatzeko ahaleginak elkartzea eta koordinazio hori Oarsoaldeko udalerriz guztietara zabaltzeko aukera zabalik uztea. Ahalegin horiek zehazteko, koordinazio-mahai iraunkor bat sortuko da.

**Hirugarrena:** Sinatzen duten erakunde guztietako langileak ezarritako koordinazio-mekanismoetan eta jarduera-prozeduretan inplikatzeko; horretarako, guztiek ere konpromisoa hartzen dute lortutako eta protokolo honetan sinatutako adostasun guztiak euren langileen artean zabaltzeko.

**Laugarrena:** Erakunde bakoitzean erreferentziatzeko pertsona bat izendatzea, protokolo honetan adostutako koordinazio-egiteko guztiei segimendua egiteko, baita ordezko pertsona bat aukeratzea ere, titularra falta denetan haren ardurak hartzeko.

**Bosgarrena:** Beharrezko eztabaida eta hausnarketa sustatzea, indarkeria bizi duten emakume biktimek arretari ahalduzko ikuspegitik heltzeko, emakumeok indarra berreskura dezaten; horrez gain, ikuspegi hori tokiko, foru-aldundiko zein Jauralaritzako berdintasun-politika publikoen esparruan txertatzea.

**Seigarrena:** Hitzarmena sinatu duten erakundeen jarduera gidatzea, protokoloaren honako atal honetan dauden jarduera-irizpideekin bat: «Asistentzia gidatzeko irizpideak eta emakume biktimekin esku hartzea»

**Zazpigarrena:** Indarkeria matxista prebenitzeko hedatze-kanpainak eta -ekintzak sustatzea, gizarteak indarkeria horren adierazpide zuzenei uko egiteko, baina baita haren forma sinboliko eta estrukturaleri ere.

**Zortzigarrena:** Protokolo honetan ezarritako koordinazio-mekanismoetara beste gizarte-eragile batzuk erakartzea eta haien partaidetza sustatzea, bai indarkeria-



matxista prebenitzen dihardutenak, bai indarkeria horren beste agerbide batzuetan jarduten dutenak, nahiz eta biktimak artatzeko prozesuetan tradizionalki inplikaturik dauden ardatzetara iritsi ez (hala nola gazteekin lan egiten duten erakundeak edota indarkeria-egoera publiko egiteko zailtasun handiagoak dituzten emakumeen beste sektore batzuekin aritzen direnak).


**Bederatzigarrena.** Emakumeak indarkeriatik irteteko bideak ezagutarazteko eta hobeto aztertzekeo datuak biltzeko erremintak sortzea, baita prozesu horretan topatzen dituzten zailtasunak jasotzeko ere.

**Hamargarrena:** Protokoloaren funtzionamenduari buruzko ebaluazio jarraitua egiteko prozesu bat garatzea, arretak hobeto funtzionatzeko beharrezko hobekuntzak aise txertatzeko aukera emango duena. Aurrekoaz gain, protokoloa sinatzen duten alderdiek konpromisoa hartzen dute protokoloaren beraren zein arreta-politiken ebaluazioa egiteko, abiarazi eta hiru urteren buruan. Esandako ebaluazio horretan, zerbitzuetako erabiltzaileen partaidetza bermatuko da, arretan izandako hobekuntzen eraginkortasuna neurtzeko xedez.

**Hamaikagarrena:** Protokolo honen ezagutza sustatzea herritarren artean, biktimek jakin dezaten zer babes-prozedura eta -zerbitzu dituzten eskura, eta herritarrak ere indarkeria matxistaren aurka egiteko eta babeserako sare sozial bilaka daitezzen.

### 3. ESKU-HARTZEAREN IRIZPIDE ETA HELBURU GIDARIAK

Jarduera-protokolo honetan jasotako jarraibideak betetzeko orduan, inplikaturako profesionalak eta erakundeek honako printzipio hauek hartu beharko dituzte kontuan<sup>2</sup>:



Esandako printzipioek arreta egokia bideratuko dute erakundeen aldetik, espezializatua, arina, koordinatua, eraginkorra eta kalitatezkoa; halaber, arreta hori indarkeria mota honi aurre egin beharrean diren pertsonetara egokituta egongo da, eta ez alderantziz.

Printzipiook protokoloa betetzeko daude sortuta, eta honako helburu hauetan islatuko dira.

- Sinatzen duten erakundeek ematen duten arreta, asistentzia integrala eta babesa hobetzea, baita erakundeotako profesionalen gaitasunak aberasteko trebakuntza espezializatua sustatzea ere.

<sup>2</sup> Erakundearteko II. Protokoloko printzipioak biltzen dira, eta protokoloa sinatzen duten erakundeentzat oinarrizko interesa duten beste hainbat eransten dira.

- Indarkeria matxistaren esparruko arreta integralerako zerbitzuak eta bitartekoak eraginkortasun handiagoz baliatzea, indarkeria hura sufritzen duten emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiboaren ikuspegia txertatuta.
- Inplikaturako zerbitzu profesional bakoitzaren jarduera-irizpideak ezartzea.
- Indarkeria matxistaren biktimak garaiz hautemateko, prebenitzeko eta artatzeko moduak sortzea, baita esparru horretan diharduten teknikariak behar beste sentsibilizatzea ere.

Protokolo honek arretaren esparrua jorratzen du. Prebentzioa, sentsibilizazioa, kontzientziazioa, trebakuntza eta tankera horretako oinarritzko alderdiak udaletako berdintasun-politiketan jasota daude edota jasota egon behar dute, baita emakumeen eta gizonen arteko gainerako berdintasun-politika publiko guztietan ere, dela foru-aldundietan, dela gobernu autonomikoetan, dela Estatuan.

#### 4. LEGE ESPARRUA ETA EMAKUMEEN ESKUBIDEAK

Euskal Autonomia Erkidegoan, indarkeria sexista jasaten duten emakumeen arretarako koordinazioa hobetzeko botere publikoen jarduerak zehazten dituen arauen eskumenezko eremuko legeria honakoa da:

##### **Emakumeen aurkako indarkeriaren** eremuan:

- i. Europako Kontseiluaren hitzarmena, prebentzioari eta emakumearen aurkako indarkeriari eta etxeko indarkeriari buruz (Estanbuleko protokoloa). 2011ko maiatzaren 11koa da eta Espainiar Estatuak 2014ko apirilaren 11n berretsi zuen. Indarraldian jarri zen 2014ko abuztuaren 1tik aurrera.
- ii. 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.
- iii. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Integralerako neurriei buruzkoa.

##### **Adingabekoen babeserako** eremuan:

- i. 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko.  
8/2015 Legea, uztailaren 22koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko sistemaren aldaketak bere antolaketa amaierako hirugarrenean zehazten du 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koaren, zehazki genero indarkeriaren babes integralerako neurriak.

##### **Eskumenen banaketaren** eremuan:

- i. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- ii. 39/2015 Legea, urriaren 1koa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- iii. 12/2008 Legea, abenduaren 5koa, gizarte zerbitzuetakoa.
- iv. 185/2015 dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zorroari buruzkoa.
- v. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren Babes Integralerako neurriak, 19.artikulua, 7.puntua, berdintasunerako erakundeen eskumenak.

**Datuen babeserako** eremuan:

- i. 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, Datu pertsonalen babesekoa.

Horrez gain, honako akordioak hartze dira kontuan:

- i. Emakumeen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzeko konbentzioa, 1999.
- ii. Etxeko tratu txarren biktima izan diren emakumeentzako Segurtasun Plana, 2002-2004.
- iii. Segurtasun indarren jardunbiderako protokoloa eta koordinazioa organu judizialekin, genero indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren biktimak babesteko, 2004.
- iv. Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeei babesa ezartzea agintzen duen protokoloa indarrean jartzeko, 2003.
- v. Etxeko tratu txarren biktima izan direnen harrera eta etxebizitza baliabideak hobetzeko programa, 2004-2005.
- vi. Osasun protokoloa etxeko tratu txarren eta emakumeen kontrako indarkeria sexualen kasuetarako, 2008.
- vii. II Erakunde arteko akordioa etxeko tratu txarren eta eraso sexualen biktima izan diren emakumeen arreta hobetzeko, 2009.

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren Babes Integralerako neurrien arabera, eskubideak zehazten dira beren bikote edota bikote ohien aldetik indarkeria jasaten duten emakumeentzat:

- |  |  |
|--|--|
| 1. Informaziorako eskubidea.   | 5. Bere egoera psikologikoa begiratu izateko eskubidea, eta beharrezko kasuan arreta berezitua eskaintzea. |
| 2. Gizarte babes integralerako eskubidea.  | 6. Eskubide laboralak.   |
| 3. Babesa, segurtasuna eta lagundua izateko eskubidea. Beharrezkoa denean eta horrela ikusten bada profesionalak lagunduko dute emakumea eta bere familia. | 7. Eskubideak gizarte segurantzari.  |
| 4. Laguntza juridiko, doako, azkar eta espezializatua izateko eskubidea.   | 8. Enpleguan eta lan munduan sartzeko eskubidea.   |
|  | 9. Eskubide ekonomikoak.   |

- |  |   |
|--|---|
| 10. Datu pertsonalak babesteko eskubidea, baita bere ardurapean dauden seme-alaba adingabeena ere. Datu horiek hartu eta erabiliko dira, soilik baimena dagoenean. | integraleko mekanismoak. Eskumena duten gainontzeko profesionalen horren berri eman beharko die ahal bezain azkar eta adostutako pausuak jarraituz. |
| 11. Lehenengo arreta burutzen duen profesionalak, zerbitzuak edo erakundeak eskubidea izango du martxan jartzeko arreta  | 12. Emakume funtzionario eta langile publikoen eskubideak.  |
|  | 13. Emakume atzerritarren eskubideak.   |

Delituaren biktima gisa, beste eskubide batzuk aitortzen zaizkie:

- Salaketa adierazteko eskubidea.
- 27/2003 Legea, uztailaren 31koa, Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duena; Lege horretan ageri den babes agindua eskatzeko eskubidea.
- Bere erasotzailearen aurrean ez deklaratzeko eskubidea, eta bere segurtasuna eta ongizate emozionala ziurtatzen duten bitartekoak erabiltzea.
- Eragindako minaren kalte ordaina jasotzeko eskubidea.
- Jarduera judizialei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea.
- Intimitatea babesteko eskubidea.
- Delituen biktimei laguntza.

## 5. GIZARTE ZERBITZUEK BIDERATUTAKO ARRETA-, DERIBAZIO- ETA KOORDINAZIO-PROZEDURAK

**Gizarte-zerbitzuek laguntza jarraitua eskaintzen diete indarkeriaren biktima diren pertsoneri eta haien mende daudenei.**

Gizarte-langilea izango da kasu bakoitzaren arduraduna eta hark eskainiko du etengabe indarkeriatik irteteko laguntza bide osoan; hala, prozesu horretan, biktimak eta haren mende dauden pertsonak hainbat eratako babes beharko dute (ekonomikoa, lege-azietarako, psikologikoa, enplegua, osasunaren arlokoa eta abar). Hori horrela izanik, gizarte-langileak emango die horien guztien berri, eta hark bideratuko ditu laguntzetarako izapideak, dela laguntza-zerbitzuen bidez, deribazioa koordinatuta edota laguntza ekonomikoak izapidetuta, hala behar izanez gero.

- Erabiltzaileak zuzenean jo ahal izango du gizarte-langilearengana, baita telefonoz deituta zein bestelako erakunderen batetik deribatuta ere.
- Edozer izanik ere harremanetan ipintzeko bidea, lehentasunezko hitzordua ipiniko zaio.
- Era berean, indarkeria etxeko bisita bat egitean ere hauteman ahal izango da.

### Kasuaren balioespena

- **Premiazko kasu baten aurrean izanez gero, larrialdietako foru-zerbitzuekin lankidetzan, berehalako erantzuna bermatuko da, baita esku-hartze prozesuan laguntza eskaintzea ere arriskua apaltzen den bitartean edota babeserako lehen neurriak hartzen diren bitartean.**

**Premiazko egoeratzat** hartuko dira *berehalako erabaki bat hartu beharreko kasuak, eta haren berri izan bezain pronto ekintzaren bat eskatzen dutenak*, emakumeak aitortzen duelako litekeena dela haren osotasun pertsonala arriskuan izatea edota:

- a. Begien bistako lesioak ageri dituenen (berdin du aitortzen duen ala ez bikotekideak edota bikotekide ohiak egin dizkiola).

- b. Salaketa bat jarri badu edota jarri nahi badu, eta teknikari arduradunek arriskua ageri dela irizten badiote.
- c. Jo duen zerbitzu horretan adierazten badu bikote-harremana amaitzeko erabakia duela, eta balioesten bada harremana etete horrek pertsonaren osotasuna arriskuan ipin dezakeela.
- d. Ez badu aitortzen zer arrisku duen, baina artatzen duten teknikariak arrisku-zeinuak eta/edo -sintomak ikusten badituzte, nolabaiteko larritasuna sor dezaketenak pertsona hori etxera bueltatzen denean edota berehalako denbora batean.
- e. Bere ardurapean adingabeak dituenen eta indarkeria horren eraginpean egoteagatik arriskua izan dezaketenean.

Kasu horretan, ikusirik litekeena dela emakumeak premiazko babes-neurriei uko egitea (harrera-etxebizitza eta/edo salaketa) ez duelako arrisku-balioespena edota uste duelako bere bitartekoekin aurre egiteko gauza izango dela, hura artatzen duen teknikariak emakumeen segurtasuna ahalik eta gehien gordetzen saiatuz jardungo du hasiera batean:


- Babes-neurriak ipinita eta segurtasun-plan bat ezarrita.
- Atestatu bat ofizioz abiarazita.
- Kasuaren segimendua eginda.
- Berak bere kabuz egin ditzakeen babes-neurriei buruzko argibideak eskainita.

- *Ez baldin bada premiazko egoera, esandako hitzorduan lehendabiziko harrera egingo da eta komunikaziorako inguru seguru bat sortuko; kasuaren balioespena egingo da eta, biktimarekin batera eta dituen beharrezan arabera, babeserako eta esku-hartze sozialerako bide-orri bat diseinatuko da, behar diren bitartekoak abiarazita, direla udalekoak, aldundiarenak edota Jaurlaritzarenak.*



Erabiltzailea protokoloa sinatu duten zerbitzuren batetik bideratuta iritsiko balitz eta proposatutako bidean jarraituko duela bermatzeko, inplikaturako zerbitzuek honako eskema honetan zehaztutako koordinazio-ibilbideari jarraituko diote:

**GIZARTE-ZERBITZUEN, ERTZAINZAREN, UDALTZAINGOAREN ETA OSAKIDETZAREN ARTEKO KOORDINAZIOA**



## 6. POLIZIA-ZERBITZUEN ARTEKO ARRETA-, DERIBAZIO- ETA KOORDINAZIO-PROZEDURAK (Ertzaintza eta Udaltzaingoa)

### Ertzaintzak biktimari eskaintzen dizkion zerbitzuak:

- Larrialdi-kasuetarako arreta
- Babeste-aginduak eskatzeko izapideak
- Salaketak jasotzeko 24 orduko arreta-zerbitzua
- Arreta pertsonalizatuko zerbitzua
- Telefono mugikorra eskaintzea (Bortxa), premiazko abisuetarako
- Babeserako polizia-neurriak

### 6.1. Ertzaintza: Sailen funtzioak

Herritarren Segurtasuna	Ikerketa-arloa	EI/GI ARLOA	Inteligentzia-arloa
<ul style="list-style-type: none"> <li>•Biktimei sorospena eta asistentzia premiaz eskaintzea. Beharrezkoa denean Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzuarekin (GLFZ) koordinazioa.</li> <li>•Erasotzailearekin lotutako jarduerak</li> <li>•Hasierako arriskuaren ebaluazioa <ul style="list-style-type: none"> <li>•Prebentzio-jarduerak</li> </ul> </li> <li>•Udaltzainei jakinaraztea EI/GIrekin lotutako edozer gertakariren berri.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>•Prebentzio-eginbideak: Salaketa, babes-agindua, argiketa, epaiketa bizkorra.</li> <li>•Laguntzeko bitartekoei buruzko aholkularitza.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>•Arrisku-maila eguneratzea.</li> <li>•Biktima autobabeserako neurrietan trebatzea.</li> <li>•Biktimari aldian-aldian dei egitea.</li> <li>•Ausazko bisitak.</li> <li>•Elkarrizketak biktimarekin eta erasotzailearekin.</li> <li>•Gizarte-zerbitzuekin koordinazioa eta informazioa partekatzea.</li> <li>•Prebentzioaren plangintza.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>•Udaltzaingoarekin koordinatzea eta biktimari zein erasotzaileari buruzko informazioa partekatzea, baita epaitegiak emandako babes-neurriak ere.</li> </ul>

### 6.2. Ertzaintzaren prozedurak

*Prozesu osoan, agenteek biktimari laguntza eskainiko diote, zibilez jantzita eta bereizgarririk gabeko autoetan.*

- SALAKETA JASOTZEA. Biktimaren egoera emozional berezia kontuan hartuko da, betiere segurtasun-giroa sortzen saiatuz, leku eroso eta pribatuan, ahal dela inork edo ezerk etetea galarazita eta biktimaren intimitatea gordeko duen egoeran. Nolanahi ere, biktima deklaratzeko moduan ez dagoela sumatzen bada, deklarazioa eten egingo da beharrezkoa den guztietan, edota atzeratu ere egin ahal izango da. Salaketa jartzen amaitutakoan, biktimari kopia bat emango zaio.

Biktimari salaketa jartzearen ondorioen berri emango zaio, baita babes agindu bat eskatzeko aukeraren berri ere; horretarako, aholkularitza dohainik jasotzeko eskubidea izango du. Biktima aholkularitza jasotzeko prest baldin badago, poliziak horretarako behar diren kudeaketak egingo ditu, eta biktimari jakinaraziko dio noiz dagoen aurreikusita abokatua polizia-etxera iristea.
- BABES-AGINDUA ESKATZEA. Polizia etxean Babesteko Aginduaren eskaera egiten denean, gertakariak frogatzeko urgentziatzko atestaturia edo txostena egingo da; hala, delitu eta falta jakin batzuk azkar eta berehala epaitzeko prozeduraren arabera izapidetuko da atestaturia edo txosten hori.
- LAGUNTZA. Biktimak bere segurtasuna arriskuan ikusten badu edota hala eskatzen badu, lagundu egingo zaio bai berari eta, beharrezkoa bada, baita bere ardurapean dituen seme-alaba adingabeei ere, dela biktimak proposatutako helbidera, dela beste tokiren batera (senitartekoren baten etxera, lagunenera, etab.), edota udal-harrerarako bitartekora, hura jotzen bada komenigarritzat.

Biktimari bereizgarririk gabeko autoekin eskainiko zaio laguntza, eta beharizanik premiazkoenak estaliko zaizkio: premiazko zerbitzu medikoa, gizarte-zerbitzuak, etxebizitza, harrera-errekurtsoa, epaitegia (barne-prozedurak hala ezartzen duenean lehen agerraldira eramatea) eta abar.
- MENDEKO PERTSONAK. Biktimaren kargu adingaberik edota mendetasuna duten pertsonarik izanez gero, biktimak adierazitako pertsonen edota senitartekoen ardurapean ipiniko dira, haien ardurak hartzerik ez duen denboran; hori posible ez balitz, kasuari dagokion gizarte-zerbitzuarekin harremanetan ipini beharko da (Aldundiaren Adingabeen Zerbitzua), haien kargu egin daitezten.

- **INFORMAZIOA.** Biktimari idatziz jakinaraziko zaio bere eskubideak zeintzuk diren, bai eta eskura dauden baliabideak zeintzuk diren ere. Kasu guztietan, lehendabiziko arreta igaro ostean, oinarrizko gizarte-zerbitzuek zer arreta eskain diezaioketen jakinaraziko zaio, adieraziz komenigarria dela haietara jotzea.
- **BAIMENA.** Emakumeari baimen idatzia emateko eskatuko zaio, Ertzaintzaren esku ipinitako datuak gizarte-zerbitzuekin partekatu ahal izateko, biktima zerbitzuon erabiltzaile ez den kasuetan. Urtero-urtero, Berdintasun Sailari artatutako eta baimendutako kasuen berri emango zaio, zeregin horretarako adostutako formatuan koordinatzeko.
- Ertzaintzak Udaltzaingoari jakinaraziko dizkio genero-indarkeriarekin (GI), etxeke indarkeriarekin (EI) edota sexu-erasoekin lotutako gertakariekin abian diren jardunbideak.
- Biktimak onespina ematen duenean, Ertzaintzak Gizarte Zerbitzuak jakinen gainean jarriko ditu eta haren akonpainamendurako deribazioa egingo du. Onuragarria dela baloratuz gero, emakumea bertan egongo den hitzordua zehaztuko da Gizarte Zerbitzukoekin. Osterantzean, Gizarte Zerbitzuko langileak biktimarekin harremanetan ipiniko dira, zita zehazteko.

### 6.3. Udaltzaingoen prozedurak

- Udaltzaingoek genero-indarkeriaren kasu bat izatean, eraso aribidean ez denean eta biktimak salaketa ipini nahi duenean, Ertzaintzara bideratuko da kasua; eta horretarako emakumearen onspena izatekotan, Gizarte Zerbitzuei jakinarazten zaie.
- Biktimak salaketa ipini nahi badu baina ez badu Ertzaintzara joan nahi, epaitegira bideratuko da. Komenigarria irudituz gero, biktimari bertaraino lagunduko zaio.

- Biktimak ez balu salaketarik ipini nahi, eta halakorik egiteko oniritzirik emango balu, kasua gizarte-zerbitzuetara edota Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzura (GLFZ) bideratuko litzateke, arretarako ordutegien arabera.
  - Kasu horietan, garrantzitsua da biktimari jakinaraztea ofizioz salaketa bat ipiniko dela, ondoren gertatuko diren jardueren berri emanda.
  - Udaltzainak Ertzaintzaren aurrean agertuko dira argiketa egiteko eta ofiziozko salaketa ipintzeko.
  
- Eraso aribidean denean
  - Lehendabiziko jarduerak egingo dira: Egoeraren kontrola, biktim(ar)en asistentzia eta arreta, erasotzailea atxilotzea.
  - Ertzaintzara deitzea, kasua bertara eramateko.
  - Ertzaintzak biktimari ertzain-etxera eta/edo osasun-zerbitzuetara lagunduko dio. Kasuaren arabera, balioetsiko da komenigarria ote den Udaltzaingoak berak laguntzea.
  
- **Sexu-erasoen kasuan**
  - Kasua Ertzaintzara bideratuko da.
  - Biktima Donostia ospitalera eramango da.
  - Ertzaintzak lagunduko dio ospitalera. Balioetsiko da komenigarria ote den Udaltzaingoak eramatea edo anbulantzian bidaltzea.
  - Biktimari ez garbitzeko eta arroparik ez aldatzeko esango zaio, eta, aho bidezko erasorik gertatu bada, ez jateko eta edateko ere adieraziko zaio.
  
  - Sexu-erasoen kasuan, bai Udaltzaingoak artatuetan, bai Ertzaintzak jakinarazitakoetan, informazioa gizarte-zerbitzuen esku ipiniko da, baldin eta emakumeak horretarako baimena ematen badu. Baimen horren berri gizarte-zerbitzuen ordutegitik kanpo izanez gero, informazioa berriro ere lanorduetan direnean helaraziko da.

#### 6.4. Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren arteko koordinazioa

Bi erakundeon arteko koordinazioa honako esparru honen barruan ezarriko da:

- Polizia-kidegoen arteko lankidetzeta-politika.
- Biktimei eskainitako arreta; hain zuzen ere, biktimak babestea izango da bi polizia-kidegoen arteko jardueren interes nagusia.
- Aldian-aldian eta beharrezkoa den guztian informazioa trukatzeta.

☐ Bi polizia-kidegoen arteko harreman telefonikoa egunero izango da, *hurbiltzailearen* figurarekin. Bi kidegoek genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen alorrean egindako esku-hartzeen informazioa emango diote elkarri.

☐ Bi erakundeon arteko koordinazioaren esparruan, hamabostean behin bilerak egingo dira Ertzaintzaren eta Pasaiako Udaltzaingoaren artean, eta hilean behin Ertzaintzaren eta Lezoko Udaltzaingoaren artean. Hala, haietan:

- Lehentasunezko espazioa eskainiko zaio genero-indarkeriarekin eta sexu-erasoekin lotutako gaiak jorratzeari.

-Horretarako, beharrezkotzat jotzen den guztietan, Ertzaintzaren GI/EI Arloko kideak bertan egongo lirarteke.

☐ Berehalako koordinazioa eskatzen duen premiazko kasuren bat izanez gero, gertakariak izandako egun berean elkartuko dira.

## **Urruntzeko aginduak**

### ***Ertzaintza***

- *Ertzain-etxeetan zuzenean jasotako urruntzeko aginduen berri emango zaio Udaltzaingolari. Ertzaintzak Udaltzaingoaren esku ipiniko ditu eskura dituen argazkiak<sup>3</sup>.*

### ***Udaltzaingoa***


-*Epaitegiak edota beste polizia-kidegoek emandako informazioa sistema informatikoan jasoko dute.*

<sup>3</sup> Erasotzaileen kasuan, atxilotze-fitxa duenean bakarrik izango ditu argazkiak Ertzaintzak. Biktimen kasuan, haiek baimena eman orduko eskuratu ahal izango dira.



*- Ertzaintza jakinaren gainean jarriko dute urruntzeko agindua hautsi izanaren berri izanez gero, dela polizia-kontrolen batean jaso delako, dela udaltzainen batek ikusi duelako.*

ERTZAINTZAREN ETA UDALTZAINGOEN ARTEKO KOORDINAZIOA



## 7. OSASUN-ZERBITZUEK ESKU HARTZEKO PROZEDURAK

### 7.1. Larrialdietako arreta

- Genero-indarkeriako egintzaren berri izatea eta biktimari arreta ematea.

Horrek esan nahi du emakumearen kontrako indarkeria-egintzaren berri ematen zaiola osasun-zentroari; hala, lehen harrera eta arreta emango zaizkio biktimari, zentroaren jarrera-protokoloari jarraikiz.

Emakumea lesio larriekin agertzen bada osasun-zentrora, Donostia ospitalera eramango da, horretarako ezarritako prozedurari jarraikiz. Osasun-zentroa arduratuko da biktima ospitalera eramateko anbulantziari deitzeaz.

Osasun-asistentzia hori eskaintzeko, kontu handia izango da emakumearen intimitatea babeste aldera.

Osasun-asistentziaren ostean, alderdi judizialei helduko zaie, eta lesioen parte bat prestatuko da. Parte hori emakumearekin batera irakurriko da. Kopia bat emakumeari emango zaio, eta bestea eskumena duen Donostiako epaitegira bidaliko da.

Kasu guztietan, Lezoko zein Pasaiako oinarrizko gizarte-zerbitzuekin harremanetan ipiniko dute emakumea.

Osasun Mentaleko kontsulta anbulatorioak artatuko ditu urgentziak, koadro klinikoaren larritasunaren eta emakumearen inguruabarren arabera.

Poliziaren asistentzia behar izanez gero, 112 telefono-zenbakiaren bidez aktibatuko da.

- Kalte eta lesio fisiko zein psikiko posibleen asistentzia.

Kalte eta lesio fisiko zein psikiko posibleak agertuko balitu, lehendabizi horiek artatu behar direla esan nahi du.

Biktimaren osotasun fisikoak arriskurik balu, Ertzaintzari dei egingo zaio osasun-zentrora ager dadin.

- Lesioak izanez gero, lesioen partea bete beharko da, baita bidalketaren idazkia ere.

Osasun-protokoloari jarraikiz, lesioen partea beteko da, eta kopietako bat biktimari emango zaio.

- Biktimari bere udalerriko oinarrizko gizarte-zerbitzuen aldetik jaso ditzakeen babesak eskainiko zaizkio.

Biktimak onartuz gero, informazioa Gizarte Zerbitzuetara helaraziko da, eta bertan harrera- eta lan-plana egingo dute, zerbitzuak deribatuko dituzte eta kasuan inplikaturako pertsona guztien segimendua egingo dute.

Biktimak onartuko ez balu, osasun-zerbitzuek egingo dute beharrezko segimendua, eta zer bitarteko dituen eskura azalduko zaio.

Biktimak eskaintza onartuko ez balu baina adingabeak badira tartean, gizarte-zerbitzuak jakinaren gainean ipiniko dira haien babesak bermatzeko; hala, kalte-presuntzioaren printzipioari jarraituko zaio, indarkeria jasateko arriskuan daudela iritzita.

## 7.2. Lehentasunezko arreta

### Osasun Zentroa

- Langileek susmoa dutenean emakumearen lesioen atzean tratatu txarren egoera dagoela baina berak ez duenean zuzenean adierazten, osasun langileen esku dago gertaerak argitzeko sakontzea ala ez, betiere pazientearekin duen harremanari lehentasuna emanaz.
- Emakumearen historia klinikoan susmo edo oinarri nahikorik badago, emakumeari esango zaio Osasun Zentroak Epaitegia informatzeko derrigortasun legala duela.
- Oinarri nahikorik ez badago eta emakumeak ez badu esplizituki onartzen indarkeria jasaten dagoela, aztarnak emakumearen historia klinikoan erregistratuko dira. Kasu horretan, jarraipen berezia aurrera eramango da, osasun-langileen (medikua-erizaina) eta pazientearen harremana sendotzeko, arreta berezia emanaz emakumea bizitzen egon litekeen indarkeria egoerari.

- Emakumeak laguntza psikologiko espezifikoa behar badu, txanda bideratuko zaio Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin edo Osasun Mentalerako Zentroarekin, kasuaren arabera.

### **Osasun Mentaleko Zentroa**

- Laguntza emango zaie Lehen Arretako taldeetatik bideratutako emakumeei eta jarraipena emango zaie ospitaleratze unitateetan alta emandakoei. Emakumeei kontrol farmakologikoa eta elkarrizketak egingo zaizkie. Izan ere, elkarrizketetan, genero indarkeria egoerak detektatu daitezke eta pazientearen osasun mental osoaren testuinguruan aztertu daiteke, horrela, esku hartzerik egokiena erabakitzeko.
- Hala baloratzen bada, emakumea Gipuzkoako Foru Aldundiko laguntza psikologikorako zerbitzu espezializatuera bideratu daiteke, aldez aurretik, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin koordinatu ondoren.
- Osasun mentala kaltetuta dagoenean, (emakumearena, gizonarena edo biena) ez dago salaketaren ondorioen kontzientzia osorik; kasu batzuetan, salatzea, bikote harreman txarrari irtenbidea emateko aukera baizik, arazo bihurtzen da. Beraz, eta emakumeek salatzeko duten eskubidea zalantzan jarri gabe, beraiekin salaketaren ondorioak baloratuko dira. Beharrezkoa bada, OMZk egoera baloratzeko laguntza eskatuko die Gizarte Zerbitzuei edo Ertzaintzari.
- Batez ere garrantzitsua da aipatutako egoera aztertzea salaketaren ondorioz urruntze agindua ezartzen bada eta hura ezin denean bete, etengabeko zaintza behar dutelako (biktimak, erasotzaileak edo biak). Halako egoeren aurrean, Osasun Mentaleko Zentroa Gizarte Zerbitzuekin edota Epaitegiarekin harremanetan jarriko da, esku-hartzeko aukerarik onena baloratzeko.

### **7.3. Osasun zerbitzuen eta inplikaturako gainerako erakundeen arteko koordinazioa**

#### **Aurreikusitako kasuak**

Osakidetzak honako kasu hauen arabera sailkatzen ditu esku-hartzeak:


#### **Etxeko tratu txarren kasuan:**

- Argi ikusten diren lesio fisiko edo psikiko larriak ageri direnean.
- ageriko lesiorik gabe


**Sexu eraso edo abusu kasuetan:**

- Sexu-eraso edo -abusu gertatu berria (72 ordu baino gutxiago)
- Gertatu berri ez den sexu eraso edo abusu kasuetan.


**7.3.1. Etxeko tratu txarren aurrean, ageriko lesio fisiko eta psikiko larriekin**




7.3.2. Etxeko tratu txarren kasuan, ageriko lesiorik gabe



7.3.3. Esku hartzea gertatu berri den sexu eraso edo abusu kasuetan (72 ordu baino gutxiago)



7.3.4. Esku hartzea gertatu berri ez den sexu eraso edo abusu kasuetan





## 8. BERDINTASUNeko SAILEN EDO ARDURADUNEN PROZEDURAK

### 8.1. Sailaren helburuak arretan

Pasaiako Berdintasun Sailak eta Lezoko Berdintasuneko arduradunak bi udalerriotako berdintasun-politikak sustatzea dute helburu, baita indarkeria matxistaren prebentzio-neurriak garatzea ere.

Indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta zuzena ematea euren egitekoa ez bada ere, berdintasun-politiken segimendua egiteaz arduratzen dira, eta horien barruan sartzen dira indarkeria matxistaren alorreko jardura-politikak; horrenbestez, euren ardura izango dira biktimen arreta hobetzeko prozesuak eta mekanismoak sustatzeko egitekoak. Eta, horien artean, protokolo hau.

### 8.2. Berdintasun-sailen egitekoak

#### 8.2.1. Genero-indarkeriako egintzaren berri izatea eta biktimari arreta ematea

Arrazoiren bat dela eta biktima aurrez aurre joaten bada Berdintasun Sailera bi udalerrri hauetakoren batean, hasierako harrera emango zaio jakiteko zer eskatzen duen. Ondoren, gizarte-zerbitzuetara bideratuko da<sup>4</sup>, eta, hala eskatzen badu, bertaraino lagunduko zaio; bestela, berriz, gizarte-zerbitzuetara deitu egingo da, jakinarazteko premiazko arreta behar duen biktima bat joango dela, edota hitzordua eskatuko da, arreta ez baldin bada premiazkoa.

Biktimak telefonoz deitzen badu, hitzordu bat adostuko da harekin ahalik eta bizkorren, eta hasierako harrera aurrez aipatutakoaren arabera egingo zaio.

---

<sup>4</sup>Lezoko kasuan, Berdintasun Saila Gizarte Zerbitzuen barruan dago; hori dela eta, ez da beharrezkoa izango biktimari laguntzea.

### **8.2.2. Erakundearteko Koordinazio Mahaiaren Koordinazioa ohiko eta ezohiko bileretan**

Berdintasun Sailak arduratuko dira mahaiaren bilerak deitzeaz, dinamizatzeaz eta haien aktak egiteaz. Deialdia idatziz egingo da gutxienez 15 eguneko aurrerapenez ohiko bileren kasuan, eta, ezohikoen kasuan, egun bat lehenago. Ezohiko bilera horiek mahaia osatzen duten edozer erakundek deitu ahal izango ditu premiaz.

### **8.2.3. Batzorde Politikoari Erakundearteko Koordinazio Mahaiaren bileretan lantzen denaren berri ematea**

Berdintasun arduradunek Mahaian lantzen diren gaien buruzko informazioa emango diote udalerrri bakoitzeko pertsonal politikoari.

### **8.2.4. Datuak jasotzea eta aztertzea**

Protokoloa osatzen duten zerbitzuek eta erakundeek jakinarazitako datuak urtero-urtero aztertuko dituzte berdintasuneko arduradunek, eta txosten bat egingo dute. Ondoren, Erakundearteko Koordinazio Zerbitzuan aurkeztuko dute txostena, bertan sortzen diren ekintzak eta neurriak guztien artean eztabaidatzeko eta martxan ipintzeko.

### **8.2.5. Prozeduren eta arretaren ebaluazioa**

Protokoloaren funtzionamenduari eta arretaren egoerari buruzko ebaluazioa hiru urteko aldiaren barruan edo lehenago egingo da, segun eta udalerrri bakoitzak zer balioespen egiten duen horrekin loturik.

Berdintasun Sailek txosten bana prestatuko dute, eta Koordinazio Mahairi helaraziko diote bertan eztabaidatzeko eta komenigarri iritzitako mekanismoak ezartzeko.

## 9. ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIOA

Erakunde sinatzaileen arteko koordinazioa hobetzeko eta Protokoloaren edukiak gauzaten doazela jarraipena egiteko eta ebaluatzeko, Protokoloa egiteko lan taldearekin jarraituko da, Koordinaziorako Mahai Teknikoa eratuz.

### 9.1. Kideak

Mahai hau Lezon eta Pasaiako erakundeetan arreta ematen jarduten duten teknikariek osatuko dute:

1. Berdintasuneko teknikariak
2. Genero-indarkeriaren alorreko Gizarte Zerbitzuetako erreferenteak
3. Udaltzaingoetako arduradunak
4. Ertzaintzaren Genero Indarkeriaren Koordinazioa
5. Ertzaintzaren Herritarren Segurtasuneko Burutza
6. Osakidetza

Pasai Antxoko Lehen Mailako Atentzioko Unitatea: sozio-osasuneko arduraduna

Pasai Antxoko, San Pedroko eta Bidebietako Lehen Mailako Atentzioko Unitatea: emagina

Lezo – Pasai Donibaneko Lehen Mailako Antentzioko Unitatea: sozio-osasuneko arduraduna

Osasun Mentala: Errenteriako Osasun Mentaleko Zentruko gizarte langilea

### 9.2. Funtzioak

- Berdintasun Sailak aurkeztutako jardueren txosteneko datu orokorrak urtero-urtero aztertzea.
- Azterketa horietatik sortutako proposamenak prestatzea eta dagokien instantzietara bideratzea, beharrezko iritzitako baliabideak eta prozedurak hobetzeko.

- Erakunde sinatzaileek biktimei eskaintako arretaren inguruan egindako lanari buruzko urteko memoria bat prestatzea, eta handik sortutako ondorioak eta balioespenak dagozkion erakundeetara helaraztea.
- Erakundearteko koordinazioa eta informazio-fluxua bermatzea.
- Protokolo honetan aurreikusi gabeko alderdi operatiboak ebatzea, berehalako erantzuna eskatzen dutenak.
- Protokoloa abiarazi ostean sortutako edozer kontingentziari erantzutea.

Beharrezkoa iritziz gero, batzorde honek kanpo-aholkularitza eska dezake bere egitekoetarako.

### **9.3. Maiztasuna eta deialdiak**

- Koordinazi-mahai hau birritan elkartuko da erregulariki, Protokoloa martxan jartzen denetik lehen urtean. Denbora igaro ostean, berrikusi egingo da eta bilerak egiteko maiztasun egokia baloratuko da.
- Era ezohikoan hala behar den guztietan bilduko da mahaia.
- Deialdia Berdintasun Sailak egingo du idatziz, eta ohiko bilerak gutxienez 15 egun aurretik deitu beharko dira. Berdintasuneko teknikariak arduratuko dira deialdiez, bileren dinamizazioaz eta aktak prestatzeaz.
- Premiazko ezohiko bilerak mahaia osatzen duen edonork deitzeko aukera izango du, egun bateko aurrerapenarekin.

## 10. INDARKERIA MATXISTA EDO SEXISTAREN ONDORIOZKO HERIOTZEN AURREAN OARSOALDEKO UDALEN ERANTZUN INSTITUZIONALA

Hauxe erabakitzen da: Oarsoaldeko Udalek indarkeria matxista edo sexistaren ondorioz pertsona bat hil dela jakitean prozedura hau jarraituko dute:

- **Gertakaria Euskal Herrian gertatzen denean**

1.- Oarsoaldeko Udal batek Euskal Herriko herriren batean indarkeria matxista edo sexistaren ondorioz pertsona bat hil delaren berri duenean, Emakunderekin harremanetan jarriko da gertatutakoa egia dela ziurtatzeko eta/edo itzarongo du Erakunde arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordean dauden erakundeak gertatutakoa publiko egin arte.

2.- Udaletxe batek, Oarsoaldeko Udaletxeen izenean, gertakariarekiko gaitzezpena eta atsekabea adierazteko prentsa oharra bidaliko die komunikabideei. Honez gain, Oarsoaldeko Udaletxe guztiek udal web orrian zintzilikatuko dute esandako prentsa oharra irudi honekin batera:



Prentsa oharrean Oarsoaldeko mugimendu feministek egiten duten elkarretaratze deialdirakin bat egingo dute Oarsoaldeko Udalak, Errenteriako Berdintasunerako Kontseiluak eta Pasaiako Emakumeen mahaiak, eta herritarrei parte hartzera deituko zaie.

3.- Gertaera baieztatu ondoren eta elkarretaratze eguna pasatu arte Oarsoaldeko lau Udaletxetako balkoian indarkeria matxista eta sexistaren aurkako sinbolo bat jarriko da (bandera, kartela...).

- **Gertakaria Eskualdean gertatzen denean, gurea ez den herri batean**

1.- Oarsoaldeko herri batean indarkeria matxista edo sexistaren ondorioz pertsona bat hil denean, gainerako udalerriek itzarongo dute gertaera gertatu den herriko Udalak eta/edo pertsona erroldatuta dagoen Udalak gertaera publiko egin arte.

2.- Udaletxe batek, hiru Udaletxeen izenean, gertakariarekiko gaitzezpena eta atsekabea adierazteko prentsa oharra bidaliko die komunikabideei. Honez gain, hiru Udalek udal web orrian zintzilikatuko dute esandako prentsa oharra irudi honekin batera:



Prentsa oharrean hiru udalek, Errenteriako Berdintasunerako Kontseiluak (egokia bada) eta Pasaiako Emakumeen mahaiak (egokia bada) mugimendu feministek antolatutako ekimenekin bat egingo dute eta baldin badaude, gertaera gertatu den herriko Udalak eta/edo pertsona erroldatuta dagoen Udalak antolatutako ekimenekin ere. Herritarrei ekimen hauetan parte hartzera deituko diete.

Gutxienez Udaletxe bakoitzeko ordezkari politiko bana joango da ekitaldi horietara.

3.- Gertaera baieztatu ondoren eta elkarretaratze eguna pasatu arte Oarsoaldeko lau Udaletxetako balkoian indarkeria matxista eta sexistaren aurkako sinbolo bat jarriko da (bandera, kartela...).

**OARSOALDEKO UDALEN ERANTZUN INSTITUZIONALA, INDARKERIA MATXISTAK EDO SEXISTAK ERAGINDAKO HERIOTZEN AURREAN LEZOKO ETA PASAIKO UDALEN ERANTZUN INSTITUZIONALA, BI UDALERRIOTAKO BATEAN INDARKERIA MATXISTAK EDO SEXISTAK ERAGINDAKO HERIOTZEN AURREAN EDOTA BIKTIMA UDALERRIOTAKO BATEAN ERROLDATUTA DAGOENEAN.**

1.- Lezo edo Pasaiako Udalek bere herrian edo bere herrian erroldatua dagoen indarkeria matxista edo sexistaren ondorioz pertsona bat hil dela jakitean Koordinazio Mahaia deituko da urgentziaz, gertatutakoaren infomazio fidagarria izateko.

1. Gertakaria gertatutako Udalak Koordinazio Mahaia deituko du eta bertan erabakiko dira eman beharreko pausuak zeintzuk diren Udalak dituen datuen arabera.
2. Behin gertatutakoa egiaztatzen denean, dagokion Udalak Osoko Bilkura deituko du ahal den eta azkarren eta gertakariarekiko gaitzezpena eta familiarekiko babesa adierazten duen deklarazio instituzionala onartuko du. Ahal den heinean adierazpen instituzionalak herriko emakumeen elkarte edo elkarte feministen babesa izango du.
3. Oso Bilkuraren egin eta gero udalak elkarteratze deialdia egingo du eta herritarrei parte hartzera animatuko die.
4. Doluaren seinale Udaletxean irudi hau, edo egokiak ikusten diren beste batzuk jarriko dira:

INDARKERIA MATXISTA  
ETA SEXISTARIK EZ

NO A LA VIOLENCIA  
MACHISTA Y SEXISTA

**1 ERANSKINA:FORU ETA ERKIDEGOKO BALIABIDEAK**

- **24 ordutako telefono bidezko arreta zerbitzua: 900 840 111**

Zerbitzu honek estaldura autonomikoa dauka eta doakoa da. Eguneko 24 orduetan dago erabilgarri, urteko 365 egunetan. Momentuko itzulpen zerbitzua dauka hainbat hizkuntzetan, eta entzuteko ezintasunak dituzten pertsonentzat.

- **Gipuzkoako Larrialdi Sozialetako Foru Zerbitzua: 24 orduko arreta. 943 224 411/ 112 (SOS Deiak)**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailak, etxeko indarkeriak eta sexu indarkeriak jasan dituzten emakumeak artatzeko zerbitzua dauka, eta balorazioa egin ondoren beharrezkoa ikusten bada harrera gunera lagunduko zaio. 24 ordutan dago zabalik urte osoan: 7:00retatik 21:00tara, langilearen presentziarekin, eta 21:00tatik 7:00tara busca bidez aurkitzeko moduan.

- **Biktimaren Laguntzarako doako Zerbitzua Gipuzkoan Gipuzkoa (SAV). 900 100928**

Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Publikoaren eta Justiziaren Sailari dagokio.

- **Gipuzkoako Foru Aldundia, Gizarte Politiken Saila, Larrialdi Sozialen eta Indarkeria Matxistaren Biktima diren emakumeen arretarako Saila. 943113176/ 943112572.**

Arreta sozio-juridikorako eta psikologikorako (personal zein kolektibo) foru baliabideak koordinatzen ditu. Egonaldi laburreko eta ertaineko estantziak eta autonomia pisuak. Baita eskuhartze sozioedukatibokoak ere.

“Urrats”, Larrialdirako Arreta Etxeak, genero indarkeriaren eta sexu erasoen ondorioz beren etxea utzi behar izan duten emakumeei harrera eskaintzen die Gipuzkoan. Baita emakumearen menpeko familiakoei ere. Baliabide honetarako sarbidea Gipuzkoako Larrialdi Sozialetarako Foru Zerbitzuaren bidez egiten da (943 224 411), edota Zerbitzu Sozialetatik.

- **Oarsoaldeko autolaguntzarako taldea.**



Oarsoaldeako herrietako Udalek antolatuta, beren bizitzak indarkeriarik gabe bizi nahi dituzten emakumeak dira. Horixe da, hain zuzen, talde honetan biltzen diren emakumeen elkargunea. Astean behin elkartzen dira:

- Zalantzei eta beldurrei erantzuna bilatzeko.
- Beldurrak kudeatzeko.
- Entzunak eta errespetatuak izateko.
- Babesteko, laguntzeko eta ikasteko nola atera indarkeriatik, tratu txarretatik eta umiliaziotik.
- Indarraren eta ausardiaren aitortza.

Nahi duen emakume oro izan daiteke taldearen parte. Taldearen baldintzak dira erritmoa eta bakoitzaren erabakiak errespetatzea. Hurren zaintzarako zerbitzua dauka.

Kontaktua:

Lezo: 943521094 [damimuno@lezo.eus](mailto:damimuno@lezo.eus)

Pasaia: 943004320 [berdintasuna@pasaia.net](mailto:berdintasuna@pasaia.net)

▪ **Birgizarteratzerako laguntza zerbitzu doakoa (SAER). 943 000769**

Justizia, enplegua eta gizarte segurantzako departamentuan dago zerbitzu hau. Hiru lurralde historikotan ematen du laguntza. Gipuzkoaren kasuan Donostian dago kokatuta.

▪ **Emakumeenganako indarkeriaren epaitegia (Donostia). 943 004 383**

Gipuzkoan gertatzen diren genero indarkeria kasuen prozedura legalak tramitatzen dituzte.

▪ **Fiskaltza (Donostia). 943 000 717**

Gipuzkoako fiskaltza probintzialak ministerio fiskalaren funtzioak betetzen ditu probintziako eremuan.

▪ **Mediku forensearen klinika (Donostia). 943 004 350**

Mediku forensearen klinikari dagokio txosten mediku-legala, eta gorputzeko minen balorazioa egitea, praktika prozesalak eragin ditzaketenak.

**2 ERANSKINA: IZAERA PERTSONALEKO DATUAK ERABILTZEKO BAIMENA  
ETA INFORMATZEKO AKTA. ERTZAINZA**

<b>ERTZAINZA</b>	<b>IZAERA PERTSONALEKO DATUAK ERABILTZEKO BAIMENA ETA INFORMATZEKO AKTA</b>
------------------	---

EI/GI Espedientea: : \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_,  
Andrea/Jauna

\_\_\_\_\_, NAN/pasaporte/egoitza baimen/identifikatzeko bestelako agiri zenbakia duena

Izaera pertsonaleko datuen babeserako arauak ezarritako aurreikuspenekin eta supostuekin bat eginez, Akta honen bitartez

1. Datu pertsonalak eta espedienteari lotutako informazioa:

- Polizia kidegoen esku jarri ahalko direla, beharrezkoa izanez gero, polizia-eremuan baino ez erabiltzeko eta ezar daitezkeen babes neurriak eraginkor bihurtu ahal izateko.

2. Era berean, aipatutakoak baimena eman du datuak eta beharrezkoa den informazioa

- Eusko Jaurlaritzako Emakunderi jakinarazteko, datu horiek beharrezkoak baldin badira aginduta dauzkan zeregin eta eskumenak betetzeko –gogobetetasunari buruzko inkestak egin ahalko dira biktimei aintzatetsi zaizkien eskubideak betetzen diren egiaztatu ahal izateko-; hori guztia, genero indarkeriaren biktimenezko arretaren kudeaketa integralari erantzun efikaza emateko

Bai       Ez   
(markatu dagokiona)

Data:

Sinadura:

## 3 ERANSKINA: BAIMEN INFORMATUAREN AKTA. GIZARTE ZERBITZUAK

## BAIMEN INFORMATUA

## CONSENTIMIENTO INFORMADO

<b>Izen-abizenak</b> Nombre y apellidos		<b>NAN/beste identifikazio dokumentu batzuk</b> DNI/otros documentos identificativos	
<b>Legezko ordezkaria edo arduraduna<sup>5</sup></b> Representante legal o persona responsable <sup>1</sup>	<b>Izen-abizenak</b> Nombre y apellidos		
	<b>NAN / DNI</b>		
	<b>Helbidea/Domicilio</b>		
	<b>Harreman-mota/ Tipo de relación</b>		
<b>Zerbitzua</b> Servicio			

Sinatzaileak berariaz baimena ematen dio Lezo/Pasaia-ko Gizarte Zerbitzuei bere —edo ordezkatzan duen pertsonaren— kasuari dagokion informazioa partekatzera beste administrazio edo esparru pribatuetako profesionalekin, pertsona horiek kasuaren beharrekin loturarik baldin badute.

Baimen honek dakar entitate horrek beste profesionalei informazioa eskatu ahal izango diela, baita eman ere, eskaera ofizial justifikatua jasoz gero. Lankidetzaren helburu bakarra izango da zure kasuari beharrezko arreta eskaintzea.

La persona firmante autoriza expresamente a los servicios sociales de Lezo/Pasaia a compartir información relativa a su caso —o el de la persona a la que representa— con profesionales de otras administraciones o ámbitos privados, siempre que dichas personas estén vinculadas con sus necesidades.

Esta autorización supone que la citada entidad podrá solicitar información a otros profesionales, y también facilitarla cuando reciba una petición oficial justificada. La finalidad exclusiva de dicha colaboración será ofrecer la atención precisa para atender su caso.

<sup>5</sup> **Erreferentzia pertsonaren bat beharrezkoa bada . Bestela, bete gabe utzi**  
Caso de ser precisa una persona de referencia. De lo contrario, dejar en blanco.

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, jakinarazten dizugu zure kasuari buruzko datu pertsonalak — zuk ematen dizkiguzunak, beste administrazio publikotik edo hirugarrenetatik lortutakoak— erantsiko direla Enplegu eta Gizarte Politiketako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzaren "GIZARTE" izeneko fitxategi batera. Honako hauek dira eranste horren xedearen alderdiak: udalei eta mankomunitateei kreditu ekonomikoak esleitzea, ondorengo kexei erantzutea, eta informazioa Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistemaren eskura jartzea.

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de protección de datos de carácter personal, se le informa que los datos personales relativos a su caso —los que usted nos proporciona, los obtenidos de otras administraciones públicas o de terceros—, van a incorporarse a un fichero denominado "GIZARTE" de la Dirección de Servicios Sociales del Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco. La finalidad de esta incorporación se refiere a los siguientes aspectos: la asignación de créditos económicos a los municipios y mancomunidades, la atención de quejas posteriores, la realización de estadísticas y la puesta a disposición del Sistema Vasco de Información sobre Servicios Sociales.

Nahi izanez gero, eskubidea duzu Legeak ezarritako eskubideak erabiltzeko: datuetara iristea, datuak zuzentzea, indarririk gabe uztea, eta aurkakotasuna. Horretarako idazki bat bidal dezakezu Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzara: Donostia kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz. Eskatera, izapidea eta laguntzaren ebazpenen gaineko tratamenduari dagokionez, erreferentziako oinarritzako gizarte zerbitzuetara jo dezakezu eskubide horiek erabiltzeko.

Si lo desea, puede ejercitar los siguientes derechos previstos en la Ley: acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Servicios Sociales del Gobierno Vasco: Donostia Kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz. En relación a los tratamientos relacionados con la solicitud, tramitación y resolución de la ayuda, se podrá ejercer estos derechos ante el servicio social de base de referencia.

Pasaia/Lezo, 2016ko

Pasaia/Lezo,

de2016

**Sinadura** / Firma

#### 4 ERANSKINA: DATU PERTSONALAK LAGATZEKO ADOSTASUN AKTA. UDALTZAINGOA

##### DATU PERTSONALAK LAGATZEKO ADOSTASUNA. UDALTZAINGOA CESION DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL. POLICIA MUNICIPAL

<b>Izen –abizenak</b> Nombre-apellidos	
<b>NAN - Pasaportea –Egoitza baimena - identifikaziorako beste dokumentu bat</b> DNI-Pasaporte- Permiso de residencia- Otro documento de identificación	

##### Legezko ordezkaria edo arduraduna<sup>6</sup> Representante legal o persona responsable

<b>Izen –abizenak</b> Nombre-apellidos	
<b>NAN - Pasaportea – Egoitza baimena - identifikaziorako beste dokumentu bat</b> DNI-Pasaporte- Permiso de residencia- Otro documento de identificación	
<b>Harreman mota</b> Tipo de relación	

Lezo edo Pasaiaiko Udaltzaingoak informazio hau eman didatela jakinarazten dut:

- Nik emandako datuak INDARKERIA SEXISTAREN AURKAKO TOKIKO PROTOKOLOA izeneko fitxategian sartzeko dira, eta fitxategi horren titularra Udala da.
- Horren guztiaren helburua da, zerbitzuen jarduera koordinatuz, niri eta nire ardurapean dauden pertsonaei arreta osoa ematea.
- Informazio hau baliagarria izango da datu objektiboetan oinarritutako politika publikoak sortzeko, eta ikerketarako zein estatistiketarako erabiliko dute.

Eskubidea dut:

- Hemen agertzen diren datu batzuk nahiz guztiak erabiltzeko baimena ez emateko.

Baimena edo adostasuna ez emateak ekar ditzakeen ondorioak zeintzuk diren azaldu didate.

- Lezo/Pasaia-ko Udalean datu hauek ikusteko, aldatzeko, baimena kentzeko eta ezadostasuna adierazteko.

Horrenbestez, libreki nire adostasuna ematen dut Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari jarraiki.

Lezo/Pasaia, 2016ko .....

**Sinadura/Firma**

Por medio de este escrito hago constar expresamente que he sido informada por la Policía Municipal de Lezo o Pasaia de que :

- Los datos personales proporcionados se incorporaran a un fichero denominado PROTOCOLO LOCAL CONTRA LA VIOLENCIA SEXISTA cuya titularidad es del Ayuntamiento.
- La finalidad es prestarme una atención integral, a mí y a las personas que de mí dependen, coordinando la actuación de los distintos servicios existentes.
- Esta información ayudará en la elaboración de políticas públicas basadas en datos objetivos al mismo tiempo que podrá ser utilizada para finalidades estadísticas y de investigación.

Así mismo, tengo derecho:

- A negarme a facilitar esta autorización de forma total o parcial. Se me ha informado así mismo de las consecuencias que esta negativa puede tener.
- A ejercer los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición ante el Ayuntamiento de Lezo/Pasaia

Y conforme a todo ello, otorgo libremente el consentimiento conforme a la Ley Orgánica 15/1999 de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.

Lezo/Pasaia, .....2016

<sup>6</sup> Beharrezkoa denean bakarrik bete - Complimentar solo en caso necesario